

Eleizondokoak bakarrik hartuko dabe parte San Balendin jaietan

COVID-19ari aurre egiteko protokoloa jarraituteko, Zeanuriko Eleizondoko bizilagunak modu pribaduan egingo dabe parrokiatik ermitara santuaren irudia eramateko prozesinoa eta artearen neurketea. Hurrengo egunean, domekan, mezaren ostean ez da jai ekitaldirik egingo. **12. orrialdea**



Ainhoa Ruiz de Infante Txumuluxuetako eta Olatz Ruiz de Larramendi bikotea txapelkunorde Emakumeen Esku-pilotako III. Bizkaia Txapelketan

11. orrialdea

Rafa Ugaldereen *Misterioa* irabazle eta Karlos Aretxabaletaren *Adiorik ez bigarren*

Urtailaren 23an emon ziran jakitera Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketako bigarren edizinoko irabazleak sari banaketa ekitaldian.

Misterioa, lehenengo saria irabazi dauan Rafa Ugaldereen narrazioa, irakurri daiteke erdiko orrialdeetan.

Sariak Aritz Undurraga, Lemoako zinegotzia eta Irene Bilbao Zertu Kultur Elkarteko presidentearen eskutik jaso ebezan.

Sariak banandu ostean, Lemoara hurreratutako publikoak, bertso-trama erotikoaz gozatu eban. Uxue Alberdi eta Sustrai Colinaren bertsoak Arkaitz Estiballesek sortutako tramea garatu eban.

Zertu Kultur Elkartek, Arratiako udalen laguntzeagaz, lehiaketea antolatuten jarraitzeko asmoa dauka eta hainbat edizinen ostean, ipuin irabazleak liburu baten batzeakoa. **8., 9. eta 13. orrialdeak**



IGORRE

Kelvion enpresea ez zarratuteko akordioa lortu dabe

Igorreko lantokian 73 langile egoazan eta 43 lanpostu mantenduko dira. Aurre erretiroak erraztuko dira eta enpresek aldi baterako beharginak behar dituanerako lan-boltsa bat sortuko dau beste langileak. **5. orrialdea**

EKIN 30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

ARRATIA

Aratustek ospatuteko ekintza gitxi batzuk antolatu dira

COVID-19a dala-eta bizi dogun egoera honetan Aratustek ezingo dira lagunartean eta kalean ospatu, baina, indarrean dagozan neurriak betez, hainbat jardura antolatu ditue Artean, Bedian, Igorren eta Lemoan. Jaiak herrikoienak izan dira urteetan Aratustek; negu erdian musika, jantza eta kolorea ipini izan dabenak. **5. orrialdea**



DIMA

Udal kontuetan %10eko jeitsiera

Igaz baino %10 txikiago diran aurrekontuak onartu dabez Diman, EAJ-PNVren, Dima Aukeratu (DA) eta Koldo Ausmendiren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstenzinoagaz. Aurten 1.525.546 euro kudeatuko ditu Udalak, aurrekontuen arabera.

Jeitsiera handia izan arren, oin arteko zerbitzu guztiak eskaini eta garbitasunean ahalegin berezia egingo dala dino EAJ-PNVk eta azpiegitura sozioekonomikoa bultzatzea dala aurrekontu honen helburua.

Koldo Ausmendi zinegotziak DA taldea itxi dau eta horrek aldatetea ekarri dau Udalean. Izan be, Ausmendik zinegotzi izaten jarraituko dauan arren, DAREN proiektuetatik kanpo egongo da. **7. orrialdea**

Literatura txokoa

ANALFABETOA IDAZLE

Agota Kristofen *Analfabetoa idazle* liburua bere txikitasunean eta laburrean handia da sano, bitxia, zirrargarria. Hamaika ataletan dago antolatuta: hasiera, ahozkotik idatzira, poemak, pailazokeriak, ama hizkuntza eta hizkuntza etsaiak, Stalinen heriotza, oroimena, deserituak, basamortua, nola egiten da bat idazle? eta analfabetoa.

Aita-amengandik eta nebegandik 14 urtegez bereizita, barnetegian —diziplinapean eta obdientziapean— emongo dauz egunak, baina ez aberatsentzako barnetegian. Egoneza, libertade eza gainditzeko eta ordu luzeak arintzeko irakurtzen dau. Eguneroko sekretu bat idazten hasten da. Hizkuntzeagaz jolasen dau, irakurritakoa errezitau,

aldu, erritmoa hartu, erimak sortu, kantau, poemak sortu...

21 urte dituala, Hungaritik, sorterritik iges egiten dau 4 hilabeteko umetxoagaz —aldean umearentzako biberi eta beharrezkoak diranakaz alde batetik, eta hiztegiakaz, bestetik—. Sorterritik Austriara, Austriatik Suitzara heltzean da, polizia-etxeko bulegoetatik, igeslari-zentroetatik eta enbajadako bulegoetatik pasauta. Suitzatan topetan dau harrera-herria. Igesaldi horretan arrotzak egiten jakozan hizkuntzak —etsaiak: alemana, erusiera, frantsesa—bere ama hizkuntza lurperatuko dabe. Ibaldit horretan bizitakoak, beste hizkuntzak derrigorrean ikasi beharrak, bizi-modua atera beharrak eta idazte-

ko zaletasunak, trebetasunak, goak... literaturan giltzarri bihurtu dabe idazlea. Hortik liburuaren izenburua.

Eraz eta takada batean irakurten da artista honen artelan hau.

Maite Bernaola



Agota Kristof

Itzultzailea: Eskarne Mujika Gallastegi

Analfabetoa idazle

Alberdania, 2020

52 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zezeilaren 1etik 7ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Zezeilaren 8tik 14ra

Melero. Amorebieta-Etxano.
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Zezeilaren 15etik 21era

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 94 433 33 33

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermibarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Ermibarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Iraia Herrero eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu,

Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia

(Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga

(Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Izartu



Personea edo animalia lotan egon ostean, kontzientziara etortea da izartutea. Izartu berbearen hainbat aldaki erabilten dira Arratia inguruan: izartu (ixártu, ahoskatuta), itxartu (Diman eta Zeanurin; itxártu/itxértu, ahoskatuta), atzarri/atxarri, irantzarri/irintzarri, iratzartu (Ubiden), iritzartu (JB Eguzkitza), itzarri (Igorren; itzéri, ahoskatuta) edo iratzarri (Azkuek jaso). Batuan, esnatu esaten da. Adberbio modura, itxarrik (itxárrik, ahoskatuta), izarrik eta atxarrik aldakiak be jaso doguz.

ERETXIA

Konbitea

Irakurle bizi gara. Ia gai baka-rrari bueltaka. Gutako asko-
rentzako barriak diran berbak be ikasi doguz azken aspaldian; pandemia, txertoa, konfinam-
tua, perimetrala, zaugarriak... Zurrumbilo horretan murgilduta gagoz. Krisiaren mamua aurrez aurre daukagu. Burua jaso ezinda eta etxetik edo herritik urten ezinda topetan gara. Triste dago ingurua, aspertuta ume, gazte eta nagusiok.

Halan zein holan, urte barri arraro honetan be bizitzak emoten dauz batzuetan poztasun txikiak. Neuri behintzat horixe jazo jat, konbitea heldu jat hatxostetik, gure birramama Juanaren parajetik, nire ondorengoak eta lagunak bizi diran herritik. Pozik jaso dot deia. Wikiemakumeok zertan gabizan jakinguran ei dagoz Arratia aldean.

Labur esanda, andrak bistaratzeko ahalegina egiten gabizan andra talde edo sare bat gara Wikiemakumeok. Izan be, andrak bazterrean egon gara luzaroan, gizonenak izan dira neurri handi baten plazak, pulpitoak, mikrofonoak, liburuak, egunkariak eta osterantzekoak be.

Horregaitik gabiz ekinean, horregaitik sortu zan 2015ean Wikiemakumeok sarea, Wikipedian be andrak bistaratuteko, eta harrezkero genero-arrakala murriztuteko ahalegina egiten gabiz. Egia esan, gizarteko beste arlo askotan lez, Wikipedian arrakala handiak eta sakonak dagoz. Andron presentzia ez da %20ra helztean Euskal Herri mailan.

Aitatutako arrakala horretatik Arratia be ez dago libre. Arratiako 79 gizon esanguratsuren izenak agertuten dira eta andrenak oster, 9 baino ez. Ez ete da egon, edo ez ete dau Arratian andra esaguratsu gehiago? Egongo ez da ba!

Horretarako baina, baten batek hartu behar ardurea. Eta zer egin geinke? Nondik hasi?

-Falta diran arratiar andra aitzindarien biografia barriak sortu



MARISA BARRENA LARRUZEA

Wikilaria

-Andrazkoen biografiak beste hizkuntzetatik euskerara itzuli.

-Eginda dagozan biografiak hobetu, hornidu.

-Biografietan argazkiak txertatu.

-Arratiako andra taldeen historia wikipediaratu.

Baina, Wikipedian edozeinek idatzi ahal dau? Edozeinek ez, danok gara kapaz Wikipedian idazteko edo idazten dabizana lagunduteko. Argi euki behar dogu oster, ezin dogula edozer idatzi. Datu zehatzak jarri behar doguz eta iturri fidagarriak erabili, hortik aurrera, libre.

Wikiemakumeok urteak daroguz ekinean, hori dala eta hainbat herritan dago wikilari taldea. Oin arte arrakala batzuk konpondu doguz, Arratian be wikilari bat behintzat hasi da beharrean eta jarri dau bere aletxo. Lehenengo ekarpena egin dau, Aramaion jaio eta Areatzako emagina eta Emakume Abertzale Batzaren sortzailea izan zana wikipediaratu dau: Mari Cruz Gurutzeta, Areatzan bere izeneko plaza daukan andrea.

Eta, zenbat Mari eta Mari Kruz ete dau bistaratu barik? Hasi izenak pentsetan, andrak. Ze, gurdia tiraka hasi beharko dogu, geroko itxi barik. Ze, geuk egiten ez doguna ez dau beste inork egingo. Tira ba, ditxosozko COVID honek koban sartzean ez bagaitu betiko, pozarren joango naz hatxostera, zuen deiadar oihura, nik dakidantxoa azaldutera. Ez da gata, benetan. Eta gogoratu "izena duen guztia omen da", izenik ez daukana oster, erraz ahaztuko da.

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsinoak
Lentilen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 ICORPE (Bizkaia)
☎ 94 657 70 03 - olaetxeoptik@hormail.es

Kili-Kili
Amopu eta Puzituburu
Lehendakof Agirre 10 - ICORPE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 81

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Galdar 666 58 20 06
Puzetta polygona, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

Musika,
perimetralki
itxita

Maskarea musturrean, goizean behe-lainoa eta lanparra arean, ez dakizularik zer egin zeinken eta zer ez zehatz, normala da buruak egitea beste eguzki, beste askatasun batzuetara. Herriak ei dira batzuk, burubakoak beste batzuk, gure baitako polizia beharrean dago martitik.

Lehenengotan, etentxo bat izango zala pentsau, eta aprobetxetea erabagi genduan: astia hartu etxe-koakaz egoteko; galapan, karran, arineketan egiten genduan horren gainean pentsau; munduak ikusi bueltaka eta esan "oin arte amesetan egon gara gu".

Baina aiko hemen gure depresinoa, amesetea danean amesetan barruko tunel luze bat. Eta tunelak iruntsitako jentea boxetan itxaroten dago, eta guri be luzetxo joaku txertorik ez daukana: denporea kalendario zahar batetik eskegita geratu

da.

Eta aho fresko-fresko honegaz ezin inori mosurik emon. Eta begiakaz egin deutso maitekeinu anonimo bat heriotzeak ume jaiio barriari. Eta binilozko eskunarruokaz ezin da udabarrria ikutu. COVID-19a dala-eta txarto akabauko dogu askok. Rafa Berrio joan zan: apokalipsiaren lerro bat hartzean eban itsu-itsuan. Luis Eduardo Aute joan zan: *slow* bat gura eban jantzatu zugaz *tonight*, Arratia Ikastolako gabonetako jaialdian entzun neban lehenengoz *Rosas en el mar*.

Bill Withers joan zan, eta Wallace Roney —Miles Davis-gaz dago oin, beretzat hobeto—. Eta Bucky Pizzarelli joan zan, Bucky Pizzarelly formal-formala zan, eta Ellis Marsalis, eta Manu Divango: ene ama, jazza hiltzen dabil ala?

Eta Helin Bölek joan da, Helin Bölek txikia, 288 egun gose greban: Erdogan, entzun, "28 urteko gazte bat hil dozue!". Non dagoz gure jaka baltzak oin, euforia-gauetakoak? Modan dago Albert Camusen *Izuri* (Gallimard, 1947), Leteoa kurutzatu dogunok mesillan daukagu.

Eutsiko deutso lurak bere bideari, ala ez gara bueltauko barriro?

ZERTZEAN



AINHOA MENDIA



"Sozialki BARDINAK, gizalegez EZBARDINAK

eta erabat ASKEAK iziteko munda baten alde"

Rosa Luxemburg

BEGI TXINDORRA

Nire lagun batek esaten dauan moduan, biziraungo dogu baina kalidadez.

Itxialdiatik hona, urruntze sozialeko neurriak, bakarrik bizi diran personai, bakardadea eta batzuetan isolamentua be, ekarri deutsee. Bakarrik bizitea derrigorrezkoa izaten danean latza da bakardadea, eta aukerakoa danean, ez da beti gozoa izaten.

Askotan konturatu ez arren, naturak marketan dauan erritmoan bizi gara; udan kanpora urtetea izaten da plana eta premina; neguan, lagunartean batu eta jaten eta edaten ospatzen dogu bizitza. Oin, lagunarteko topaketak hainbeste murriztu diran honetan, bakarrik bizi diran askok bakardadean ospatu beharko dabe.

Ha-ta guzti be, ospatu beharra dago. Bakardadea lagun hartuta be ospatu. Kalidadez beti.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zentzuak 101
R.F.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPERAK
Elizasko, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)
Tel. 94 621 54 62 - 808 864 018

Sabandakari Agiri 27
Erroitz
Agiriaren gaurtik aurrera.

ARRATIA

Arratiako Korua ez da urtengo Agate Deunaren koplak kantetan

Arratiako Korua ez da urtengo Agate Deunaren omenezko koplak kantetan bere hirurogeta hamargarren urteurrenean.

Erredakzioa

Urteroko ibilaldiaz gainera, zeozer berezia egin gura eben korukoak zazpi hamarkadok ospatuteko, baina COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriak ezinezkoa egin dabe ospakizuna zein koplak kantetan urteteko tradizioari eustea.

"Pena handiz" hartu dabela ebatzia azaldu deusie BEGITURI Arratiako Korukoak, baina entseguak galarazota egon dira eta

holan ezin dirala urten dinoe. Gainera, entsegu falteari, taldea batzeako eta libre mobiduteko debekuak gehitu behar jakoz. Izan be, atzenengo dekretuak ezarritakoaren arabera, sei lagun baino gehiago batzea galarazota dago. Igaz, 9 eta 69 urte bitarteko 55 lagun inguruk osotuten eben Arratiako Korua. Taldeak Arratian, Zornotzan eta Bilbon kantetan eban bere erreperitorioa eta batutako dirua Caritas-eri emon izan deutso atzen urteotan.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Familia giroko aratustekak

Erredakzioa

Kuadrillak ezin diranean batu, familia giroko jarduerak prestatu ditue Artean, Bedian, Igorren eta Lemoan.

Jairik herrikoienak izan dira urteetan Aratustekak; negu erdian musikea, jantza eta kolorea ipinten ebenak. Egun horreetan auzoko edo herrikoakaz batu eta jana eta edana partekatzen eban jentekak. "Jan eta edan daigun, bihar hilko gara eta" izan da jai honeetako filosofia gizaldietan zehar. Umeak, eskolatan egindako mozorroakaz heritik desfileak egin, eta gai baten inguruko jaiak egiten eben danak batera Eguen Lodian edo Bariku Mehean. Astegoienean, ume eta nagusiak mozorroa jantzi eta jaigiroz beteten ziran kaleak, kuadrillak izaten ziran protagonista. Bedian barriz, jai astegoinera pasau barik, egun handia martitzen karnabalean ospatzeko ohitua mantendu dabe.

Aurtengo Inauteriak ez dira aurreko urteetakoak modukoak izango. Alde batetik, pandemiak berak, eta bestetik hartutako neurriak; hau da, etxeratze aginduak, konfinamentu perimetralak, aforo murrizketak, eta abarrek, ezinezkoa egiten dabe lehenengo moduan ospatzea negua amaitu egiten dala beti. Horregaitik, gure eremuko herri batzuetako udal eta alkarteak, ezer ez an-

tolatutea ebatzi dabe; beste herri batzuetan, zezeileko lehenengo astean hartuko dabe ebatzia. Artean, Bedian, Igorren eta Lemoan, Inauteri jaiak programau dabez.

Inauteriak familian

Eskoletako jardueraz aparte, herri mailan be prestatu dituez ekintzak Arratiako hainbat herrian. Lemoan, 4 eta 12 urte bitarteko umeak mozorroak egingo ditue ludotekan, hilaren 8tik 11ra, eta zapatuan, hilak 13, *Inauteriak piztuz familian* ikuskizuna eta jolas hezigarriak egongo dira kiroldegian. Txanda bi egongo dira eta goizez ala arrastiz joan ahal izango dira ikuskizunaz gozatzea. Hurrengo egunean, 12:00etan, Tio Teronen semeak taldearen *FreshCool* umorezko jantza ikuskizuna egongo da kiroldegian. Jarduera guztietarako izena emon behar da aldeaz aurretik, aforoa mugatua dalako.

Artean, ume eta euren familientzako musika ikuskizuna prestatu dabe Inauterietako zapatarako; *Sorgina txirulina* ipuin eta saio musikatua, hain zuzen be. Emonaldi bi egongo dira: bata 17:30ean eta bestea, 18:45ean, eskolan.

Igorren, Gaztetxeak antolatu ditu hainbat jarduera hilaren 13rako eta Kultur Etxean, Kantu Kolore taldea egongo da, 18:30ean.

Bedian, urtero lez, martitzen karnabalean, hilak 16, ospatuko dabe jaiak frontoian, Inauteri festa bategaz. 17:30ean izango da sarrerea eta *photocallean* argazkiak aterateko aukerea izango dabe jaira hurreratzetan diranak. Ostean, 18:00etan, Kiki, Koko eta Moko pailazoak, disko festa eskainiko dabe zirkuko gaiakaz, umeak jantzan, kantuan eta barre egin dagien.

IGORRE

Igorreko Gea Kelvion enpresea ez zarratuteko akordioa lortu dabe

Beharginak eta enpresak lantegia ez zarratuteko akordioa sinatu dabe.

Erredakzioa

LAB sindikatuaren arabera, lortutako akordioak, "gitxienez 43 lanposturi eusten deutso eta proiektuari gitxienez 4 urtez eusteko konpromisoa hartzean dau" enpresek. Aurre erretiroak erraztuko dira eta enpresatik ateraten diran beharginak urtean 30 eguneko kalte ordaina jasoko dabe; enpresak aldi baterako beharginak behar dituanerako lanboltsa baten sartuko dira.

Lortutako akordioa ondo baloretan dau LABek. "Gure fabrika ez zarratutea lortu dogu eta horregaitik balio handia emoten deusagu gure burrukeagaz lortutako frutuari".

Kelvion Thermal Solutions S.A.U. enpresek Igorren dauka lantegi nagusia (lehen GEA) eta bertan 73 langilek egiten eben behar. Kelvion multinazionalak estadian beste filial bi daukaz, bata Madrilen eta beste Kantabrian. Igorreko Enpresa Batzordea LABeko 3 ordezkari eta ELAko bik osotuten dabe.

Burrukea

Zemendiaren 5ean, Kelvion enpresako zuzendaritzek Igorreko lantegia zarratuteko eta behargin guztiak kaleratzeko ebatziaren barri emon eban. Iraungitzeko enplegu-erregulazio espedita ipini zan martxan behargin guztientzat. Horri aurre egiteko, Igorreko beharginak greba mugabakoa eta mobilizazioak egin ebezan; tartean, ordubeteko lan-ixtea herri osoan. Eusko Jauriaritzako Industria Saila eta beste erakundeetara be jo

eben beharginak.

Lan-erregulazio txostenak, Kelvion enpresako zuzendaritzeari behargin guztiak kaleratzeko baimena emoten eutsan, Igorren 73 behargin, hain zuzen. Enpresa batzordeak ez eban erregulazio espedita hori sinatu.

Abenduaren 23an egindako batzarrean, beharginak burrukan jarraitutea ebatzi eben eta zuzendaritzegaz negoziazioak hasi ebezan. Atzenez, akordioa lortu da eta Igorreko lantegia ez da zarratuko.



IGORRE

Alkarretaratzea egin zan Aintzane Pujanaren erailketa matxistea salatuteko

Erredakzioa

Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxa eta Arratiako mobimentu feministek deituta, konzentrazioa egin eben 50 persona inguruk, Aintzane Pujana gogoan izan eta indarkeria matxistea lehen mailako arazo politikotzat hartzea eskatzeko.

Persona bi dagoz atxilotuta, Pujana hiltea akusaziopean. Urtailaren lehenengo egunetan agertu zan 32 urteko donostiarren gorpua, baina askoz berandurago arte ez zan

jakin hilketa matxistea izan zala.

Konzentrazioaren amaieran, komunikadua irakurri zan. "Euskal Herriko mobimentu feministatik beste behin salatu gura dogu biolentzia matxistearen pandemiak mendeak daroazala gure mundu honetan. Inor ez da arduratzen berataz baina gizartearen erdiari eragiten deusku zuzenean eta ozen salatuko dogu ez gagozala prest gaitz hau gehiago jasateko. Feminismoa da daukagun antidoto bakarra eta gizarte guztian zabaltzen saiatuko gara".



AREATZA

Gazteleku barria zabaldu dabe arau barriakaz



Erredakzioa

Martxan ipini zan Areatzan Gazteleku barria urtailaren 16an. Lekuz aldatu da; altzari barriak ditu eta obrak egin dira lokala barritzuteko. Ez dau erabilera librerik izango. COVID-19a dala-eta, erabilera erre-

gulau beharra ikusi dabe udalean. Lehen, Gazteleku udalaxe azpian egoan, arkupean; oin udalaxearen aurrez aurre dagoan erai-kinarean behelaldean. Gazteleku dagoan lekuan denda bat egoan eta erosi eta obra egin da, "harritzko hormak atera jakoz lekuari, berogailu barria ipini eta komun barria egin da. Altzariak be barriak dira, sofa, mahai eta eserleku barriak... Horrezaz gainera, proiektore batentzako pantaila egonkor bat be ipini da" azaldu deutso BEGITURI Yazmina Beobide zinegotziak.

Gazteleku urtailaren 16an ipini zan martxan. Gazteak asanblada bat egin eben udalaxeko

aretoan, Zaztaparrak Asti Taldeko begiraleak deituta. Deialdia herriko WhatsApp agendaren bitartez egin zan eta gazteak eurak sortutako WhatsApp talde baten bitartez. Gaztelekuko kudeaketea Zaztaparrak Asti Taldearen bitartez egiten da eta talde honetako begirale bat egongo da Gaztelekuan.

Ez dau erabilera librerik izango COVID-19a dala-eta, Gaztelekuaren erabilera erregulau beharra ikusi dau Udalak. Ekintzak antolatuko ditue eta ekintza horreetara joateko izena emon beharko dabe gazteak, kopurua kontrolau ahal izateko. Parte hartu gura daben gazteen kopuruaren arabera, ekintza leku baten edo bestean egingo da; ahal dan neurrian aide zabalean. Izan be, ekintzak aide zabalean egiteak lehenetsuna eukiko dau.

ARRATIA

Feminismoa egunerokotasunean sartzeako hiru ikastaro

Igoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen programeari jarraituz, *Gure gorputzera buelta* hilerokoaren kultura eta ekonomia feminista batzean dituan tailerra, eta sukaldaritza begetariano, ekologiko eta osasuntsuaren gaineko ikastaroak hasiko dira.

Erredakzioa

Urtailean hasitako *iVa por ellas!* Ikastaroak saio bi izango ditu zezeilaren lehenengo hamabostaldi honetan. Ikastarootara joateko behar dan adierazpena egingo deutse Arratiako Udalen Mankomunitateak herriko urten behar dabenai.

Zezeilaren 5ean, Enara Iruretagoienak, ekonomia feminista, hileroko eta gorputzaren zaintza landuten dauzan ikastaroa emongo dau. Partaideak, hilerokoaren kulturaz egingo dabe berba. Ekonomia eguneroko ebatziakaz egiten dala ikusi eta baliabide praktikoak partekatu ditue ziklokotasunaren bide zaindua egiteko. Saio bakarra izango dau, 16:00etatik 20:00etara, Lemoako Kulturgunean.

Sukaldaritza begetariano, ekologiko eta osasuntsuaren gaineko ikastaroa be hasiko da zezeilaren 8an Marta Marimon sukaldariaren eskutik. Urtailearen 25ean zan hastekoa baina hamabostaldi bat atzeratu dala azaldu deutso BEGITURI AUMko Bardintasun Tek-

nikariak. Ikastaroa, hamabostean behin egitekoa da Arantzazuko Kultur Guneko suetean 18:00etatik 20:30era.

Neska gazteentzako Areatzako Autodefensa feminista tailerra barriz, atzeratu egin da data barik.

Hasitako ikastaroaren saioak Aurreko hamabostaldian hasitako ikastaroa be aurrera doa eta saioak izango ditu zezeilean. Monica Nuñez-ek gidatzen dauan *iVa por ellas!* erreferente izan diran andren omenezko ikastaroaren saio bi aurreikusten dira Zezuriko Kultur Etxean 17:45etik 19:45era. Bata hilaren 3an eta bestea 10ean.



ARRATIA

Aitor Zelaia eta Galder Barbadoren aldeko konzentrazioa egin zan Igorren

Erredakzioa

Urtailearen 21 eta 22an zan epaiketean eta 21ean, Ernaik deituta, konzentrazioa egin zan Igorren, "Ez dugu onartzen absolutzioa ez den beste epairik. Aitor eta Galder aske" lelopean. Dozenaka persona batu ziran mobilizaziora eta istiluen kontrako ertzain ugari be hurreratu zan. Ez zan istilurik egon. Ertzainak distantzia gordetzeko eskatu eutseen alkarretaratutakoai.

Zortzi urteko espetze zigorra eta zazpi urteko baldintzapeko askatasuna eskatzen dau fiskaltzak Galder Barbado eta Aitor Zelaia-entzat, material lehergaia eukan



Igorreko konzentrazioa.

bidoi bategaz harremana izatea egotzita. Oin dala urte bi atxilotu ebezan eta sei hilabete preso emon ostean, baldintzapeko as-

katasunean egon dira oin arte.

Ankerkeriari stop! Plataforma sortu zan alkartasun dinamikea abiatzeko.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Herrietako konfinamentu perimetrala ezarri dau Eusko Jaurlaritzaren atzenengo dekretuak

Erredakzioa

Urtailearen 25ean sartu ziran indarrean neurri murriztaile barriak. Neurriok mobikortasuna murriztu dabe batez be, herrietan konfinamentu perimetrala ezarriz. Orduetik ezin da udalerritik urten ez bada sasuna, lana, ikasketak, zaintza edo beharrezko kausaengaitik. Bilerak lau personakoak dira gehienez. Etxeratze agindua 22:00etan, merkataritza eta kultura jarduerak 21:00etarako amaitutea eta ostalaritza 20:00etan zarratuteko aginduak mantendituen dira. Baita lehendik egoazan aforo murrizketak

be. Arantzazu eta Lemoa eremu gorian sartu ziran zezeilaren 1ean eta, ondorioz, ostalaritza zarratuta dago eta eskola kirola ezin da egin.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak zezeilaren 1ean eguneratu eban atzen hamalau egunetan 100.000 biztanleko 500 kasu baino gehiago dabezan udalerrien zerrendea. Zerrenda hori astelehenero eta eguenero eguneratzen dau Jaurlaritzak, eta hurrengo egunean sartzean dira indarrean neurriak. Urtaile amaieran eta hile hasikera honetan, atzen 14 egunetako inzidentzia tasa 500 baino altuagoa da edo izan da Arratiako hainbat herritan. Halanda be eremu

gorrian sartzeako hiru baldintza emon behar dira. Herriko inzidentzia 500etik gorakoa izatea, osasun eremuko inzidentzia 500 baino handiagoa izatea eta atzen zazpi egunetan hiru postibo baino gehiago emotea.

Osakidetzako greba

Urtailearen 28an, Osakidetzako osasun etxeetako eta ospitaletako beharginak greba egin eben Satse, ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuak deituta EAE osoan. Aurretik herrialdeetan, zemendiaren 12an Bizkaian, legez "Osakidetzako langileen prekariedade" salatu eben eta osasun publikorako diru partidea handitzea eskatu.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Maskulinitasunaren gaineko online ikastaroa

Erredakzioa

Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak titulupean, Gizonduz ekimenak eta Emakundek maskulinitasunaren gaineko 25 orduko online ikastaroa eskaintzen dabe. Izena Emakunderen webgunean emon daiteke eta martiaren 27ra arte egin daiteke matrikulea. Ikastaroa aprilaren 19tik maiatzaren 30era arte iraungo dau. Zeberioko Udalak animau gura ditu zeberioztarrak parte hartzean.

Ikastaroan lau gai landuko dira. Lehenengoak, sexu-genero sistema, generoaren sozializazioa eta andra eta gizonen arteko desberdintasunen gaur egungo egoera jorratzen ditu; identitate maskulinoen erai-kuntzaren gainean eta gizonengan sexismoaren ondorioen gainean jardungo dau bigarren gaiak; maskulinitateak eta indarkeria matxistearen arteko loturak be landuko ditu ikastaroak eta, atzenik, maskulinitasun hegemonikoak deseraikitzeke egingo da lan gizonakaz.

IGORRE

Euskerea bultzatzeko batzordea indartu gura dabe

Igorreko Euskera Plana 2001ean hasi zan martxan. Herritarrek, zinegotziak eta alkarteak batzean ziran 15-16 personako batzorde baten.

Erredakzioa

Sano eraginkorra zan eta arlo guztiak hartzean ebazan kontuan, merkataritza, aisialdia eta abar. Oin, nabarmen bajatu da batzordearen eraginkortasuna eta indartu eta jente gehiagora zabaldu gura dabe partaideak.

Gaur egun plangintzarako UEMAren laguntasuna dauka Igorreko Euskera Planak, eta Euskera Teknikaria be badago. Ha-ta guzti be, zinegotziak, alkarteak eta herritarrek osotuten daben Euskera Batzordeak, ekintzak eta estrategiak diseinetan dauz euskerearen erabilera bultzatuteko. Urtilaren 21ean, batzorde eragilean parte hartzeako jentea animetako bilera bat egin zan, bertara herriko alkarteak egoazan deituta. "Igorren euskereak astinaldia behar dau. Guardia jaitsi dogu eta herriak be bai. Horregai-

tik, batzordea indartzeko deialdi zabala egin dogu eta alkarte guztiak deitu, jente gehiagorengana zabalduteko" azaldu eban Kar-mele Aurrekoetxea zinegotzi eta Euskera Batzordeko kideak.

Batzordea hilean behin batzean da.

Ingeniaritza soziala

Konfinamentuan ekintzak antolatu arren, konfinamentuak eta distantzia sozialeko neurriak komunidadea apurtu dabe, eta horrek eragina izan dau kalean entzuten dan euskeran. 2020an ez zan Inbiu egunik egin eta "Inbiu egunean, komunidadea egiten da". Batzordeko eragileak, bakotzak bere esparruan eragiteko konpromisoa daukie, baina esparruen arteko hartu-emonak be behar dirala uste dabe, "ingeniaritza soziala", euskal komunidadea egiteko.



LEMOA

Pandemiaren gaineko berbaldiak Karabie Gaztetxean

Erredakzioa

Pandemiaren gaineko berbaldi bi antolatu ditu Harriketarrak Gazte Asanbladeak, zezeilaren 4 eta 18rako. Karabie Gaztetxean izango dira biak, 18:00etan. Aurretik izena emon behar da Harriketarren blogean.

Lehenengoa, Bego Tabera Osakidetzako langilea eta LABeko delegaduak Osakidetzan gertatzen danaren gainean egingo dau berba: murrizketa eta pribatizazioen gaineko informazioa emon eta hausnartuz.

Hurrengoa, Idoia Larrañaga Arrizabalaga osasun hezitzaile eta terapeuteak emongo dau. "COVID-19 idea bakarra zalantzan jartzeko errazoi ugari" dagozala eta gertaeren gainbegirada bat eta osasuntsu mantentzeko gida bat eskainiko dauz berbaldian.

Antolatzaileen arabera, berbaldi honeen helburua "informatu, hausnartu, batu, ekin" da. Izan be, eskubideak galdu eta neurriak ipintze horretan, ea "erru osoa ete daukan pandemiak" ala zeresana daukien "zentsurautako egiak" argitu gura dabe berbaldiotan.

DIMA

Dimak ahalegin berezia egingo dau garbitasunean

Erredakzioa

Igaz baino %10 txikiagoak diran aurrekontuak onartu ebezan Diman urtilaren 20an, EAJ-PNVren, Dima Aukeratu (DA) eta Koldo Ausmendiren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstenzinoagaz. Aurten 1.525.546 euro kudeatuko ditu Udalak, aurrekontuen arabera.

Jeitsiera handia izan da, diru sarreraren hiru laurden Udalkutxatik datozalako. Ha-ta guzti be, zerbitzu guztiak eskaini eta ahalegin berezia egingo dala "momentu honeetan hain inportantea dan garbitasunean" azaldu deutso BEGITURI lurdana Acasuso EAJ-PNVko zinegotziak. Diru murrizketa honek, inbersinoetan izango dau eragina proiektu handirik ez dalako hasiko. Ha-ta guzti be jarraituko dabe saneamentuak eta bideen konponketa eta mantenimentuak. Horretarako 180.000 euro dagoz.

Kultura aberastasuna da

Jeltzaleen arabera, herriaren azpiegitura sozioekonomikoa bultzatzea daukie helburu aurrekontuok. COVID-19aren neurriak kaltetutakoentzako dirulaguntzak aktibauko dira eta kultura sustatu gura dabe "kultura sustatzea aberastasuna sustatzea dalako" Acasusoren esanetan. Hori dala-eta, kultura, kirola eta euskerea sustatzeko 92.000 euro dagoz. Aurreko legegintzaldian abiatutako memoria historikoaren inguruko Bakearen Lorea Gara proiektuagaz jarraituko dabe 2021ean.

Udal langileentzako baliabideak be garrantzitsuak dira. "Hau guztia ezin da egin udal langile eraginkor eta prestatu barik. Holangoak dira Dimakoak eta euren lana ahalik eta ondoen egin dagien baliabide gehiago ipiniko doguz".

Beste entidade batzuek daukien alkarlanari be eusten deusie kontuok; AUM, UEMA, Oinherri Herri Hezitzailea eta EUDEL, hain zuzen be.

EH Bilduk abstenzinoa

Abstenzinoa emon eban EH Bilduk eta ez kontrako botoa, aurreko egunetan idazki bat bialdu ebalako kontrako zergaitia azalduz eta bere emendakinak onartu eta hurrengo asteetan negoziatzeko prest agertu zalako EAJ-PNV. "Guretzat deigarriena da sarrerak %9,9 jeisten diranean, funtzionamentu gas-

tua %4,3 igotea eta azken urte bitan %11,5 izatea" azaldu deutso BEGITURI Borja Ruiz EH Bilduko zinegotziak. Abstenzinoa emoteko hurrengoak eskatzen ebazan EH Bilduk: inbersino errealak egiteko pausak emotea; laguntza gizarte ekintza gastua mantendutea eta ordenantza baten sartzea; COVID-19 dirulaguntza ordenantza barria egitea eta 2020ko udagoieneko itxieragaitiko ostalaritzeari dirulaguntzak lehenbailehen esleitzea, besteak beste.

Koldo Ausmendik DA itxi dau

Aurrekontuak behin-behinean onartu ziran udalbatza berean, DA taldeko Koldo Ausmendi zinegotziak, taldea itxi eta zinegotzi ez adskritua izatera pasau zan. Aldaketa horren errazoa, Ausmendiren berbetan, "DA talde politiko moduan sortu zan eta nik ez dot sentiduten lan politikoa egiten dodanik, nik herriarentzat lan egiten dot, soluzinoak emon" azaldu deutso BEGITURI.

Dima Aukeratuko komunikazio taldeak, "Ausmendik individualismoa lehenetsi dau guztiona dan egitasmoaren gainetik" dino jakinarazpen baten. Taldearen eretxian, Ausmendik taldea bere kabuz itxi dau "Udalean lan egiteko garaian sortutako desadostasunengaitik". DA taldeak barriz, talde lanari garrantzia berezia emoten deutso" eta "oin arte moduan, herriaren onerako lanean jarraituko dau erispideak bateratuz eta horretarako beharrezkoak diran akordioak lortuz".

Koldo Ausmendik zinegotzi izaten jarraituko dau baina DARI jagokozan proiektu guztietatik kanpo.



ARRATIA

Klima aldaketeari aurre egiteko eskatu eben Arratian hainbat lagunek

Erredakzioa

U30 Aldaketaldia ekimenari jarraituz, urtilaren 30ean, Arratiako herrietan, klima aldaketeari aurre egiteko eskatzeko, udaletxe aurreetan konzentrazioak egin ziran "Planeta Arratian hasten dalako!" lelopean eta Zaldibarko zabortegian gertatutakoa gogora ekarriz. Guztira, ehun persona inguru batu ziran.

U30 aldaketaldia ekimena, hainbat mobimentu eta sindikatu biltzean dituan Larreko Mahaia plataformek abiatu dau. Greenpeace, Fridays For Future, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, GuraSOS, ELA, LAB, Steilas, EHNE, Ernai eta Ikasle Sindikatuek osotuten dabe. Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak ekimenagaz bat egin eta deitu ebazan konzentrazioak.



Dimako konzentrazioa.

ARRATIAKO KALENTURAK IPUIN EROTIKO LEHIAKETEAK

Misterioa

Ipuin lehiaketeak segida euki ezker, urte batzuk barru liburu baten argitaratuko dira Arratiako Kalenturak Ipuin Lehiaketako ipuin saridunak eta akaso, finalista izandako batzuk be bai. Bitartean, urtero, ipuin irabazlea irakurri ahal izango da BEGITUN. Rafa Ugaldereen *Misterioa* da aurtengo irabazlea.

Bakarrik geratu da Maria etxea osatzen duen gela bakarrean. Leihotik sartzen den argi urriak Mariaren itzala proiektatzen du horman. Bere soinaren siluetari begira geratu da. Bularrak marrazten duen tontorrari erreparatu dio, eta aldakak definitzen duen bihurtuneari. Aldean daraman tunikari gerrri inguruan eusten dion lokarria askatu du, eta soinekoa sorbaldetatik behera limurtzen utzi du, txorkatiletaraino. Biluztasunaren itzala agertu zaio horman. Titiburu tentearen irudiari erreparatu dio. Ferekatu egin du hazpuruakin. Itzerrak eta aldakak igurtzi ditu, leun; eta eskua pubis aldera joan zaio, hormako itzalean ikusten ez den tokiraino. Lehenengoz egin du hori hamabost urtean. Zirrara bortitz bat nabaritu du hankartean. Ikaratu egin da Maria, eta soinekoa jantzi du, arin; etxean baten bat sartu litekeen beldurrez. Baina hankarteko zirrarak arnasa estutu dio, eta baretu ezinik eman du arratsalde osoa.

Eszena hori josita geratu zitzaion Mariari gogoan, eta une hartako zirrara azalean; bereziki, eskua pubis aldera joan zitzaion unea, suzko mingain baten kilika aluaren barrenean. Aspalditik zebilen sentipen nahasian artean. Mutilen begiradei uko egin behar zien behar bezalako neskato batek; begiak, ordea, ihes joaten zitzaizkion mutikoen irribarreeta. "Jaitsi ezan begirada lotsabako horrek!", bota zion amak behin baino gehiagotan mutikoei irribarrea eskaintzen harrapatzen zuenean, eta etxera helduta zaplaztekoa eman ere bai, baina gorputzaren deia gailendu egiten zitzaion amaren errietei.

Halakoetan ez zuen zaplaztekorik jasoko irribarrea bere adineko mutikoentzat izan balitz, behinik behin; errieta bat nahikoa izango zen. Baina mutiko nagusiei eskaintzen zizkien irribarreak, eta halako irribarre zikinik ezin zuen Mariaren amak onartu. Ordura arte herriko gizonezkoek neskato txo baten moduan ikusi zuten; Joaquinen eta Anaren alaba baino ez zen Maria. Halako batean, hile gutxiren tartean, aldatu egin zen guztiz; gorputza tentetu egin zitzaion, aldakak zabaldu eta bular aldea oparotu. Betidanik ezagutu zuten mutiko nagusiek, eta gizonezko heldu askok ere, erreparatu zioten Mariaren aldaketari, eta haien arteko hizketaldietan ere lekua hartu zuen metamorfosi hark. "Ama beti gustatu izan zaidak, baina alaba hobeto zatorrek, gero!", "Hiri bakarrik ez, denoi gustatu izan zaiguk ama; baina egia duk, alaba ezta baino gozoago zatorrek!"; halakoak entzutea ohikoa izaten zen gizonezkoek egiten zituzten talde txoetan, zapatueta sinagogara egin beharreko bisitaldia egin ostean.

Sentipen nahasmen harekin bizi zen Maria, baina nori esango zion ezer? Isabel baino ez zuen, euren denboraldi luzeak egiten zituen lehengusina. Baina zelan esango zion hari gustuko zituela mutikoen begiradak, gehienbat bera baino urteak zaharragoak zirenenak? Zelan esango zion sarritan suzko mingain baten kilika igartzen zuela hankartean, eta ez zuela modurik aurkitzen sua amatatzeko? Isabelek, amaren eta izekoaren irakaspenak ondo bereganatuta zituen, ezingo zuen ulertu su haren arrazoia; edo agian hark ere su berbera igarriko zuen hankartean? Ez zuen adorerik, baina, galdetzeko.

Barruko su horri kontrajartzen zitzaion gurasoek desposatzeko aurkitu zioten mutilak eragiten zion hotza. Hitz emanda egoteak, norbera esanekoa izan ez arren, seme edo alaba izanez gero, gizakia esanekoa izatera behartuta zegoen garai hartan. Mutil hura ikusten zuenean ez zuen ezer igartzen azalean; areago, itzali ezinik izaten zuen hankarteko sua leitu egiten zitzaion bizitza osoa hari eman behar ziola pentsatze hutsarekin. "Ama! Nik ez dut gustuko Jose hori!", otu zitzaion esatea behin amari, "Beste hainbat mutil daude hori baino galantagoak herrian"; "Isildu hadi! Lotsabako hori!", erantzun zion amak eskua belarri ondokoa emateko prest jasota, "Jabetu naun zelako begi luzeak ditunan mutilentzako!", eskua

gelditu zuen Mariaren aurpegia jo orduko, "Hik egingo dun hire gurasoen agindua bete, hori egingo dun hik! Eta kontuz, gero, mutikoei irribarre zikin hori erakustearrekin!", debeku horrekin bukatu zuen amak elkarrizketa, gai hura ez zuen aipatu ere egin nahi eta, "Hoa hire zereginetara!".

Etxeko lanei heldu zien Mariak etxeko leiho bakarren ondoan eserita. Barruan erretzen zitzaion deiak, baina, galazti egiten zion amaren aginduei men egitea; ozenagoa zen barrutik sortzen zitzaion deia amaren ahotsa baino. Joseren irudia gogoratzean gizon zintzo eta behargin baten irudia agertzen zitzaion, bihotz onekoa eta gatzik bakoa; gihartsua eta aldi berean baldarra; ibileran eta mugimendu guztietan dorpetxo. Malizia apur bat izan balu, apur-apurtxo bat baino ez bada ere, erakargarriago egingo zitzaion.

Leihoaren bestaldean agertu zitzaion irudi batek atera zuen gogoeta hartatik. Bera baino urteak zaharragoa zen mutil bat zuen bestaldetik begira. Mariak zeharretara begiratu zion, beldurrez ama konturatuko ote zen-edo, baina begiratzea saihestu ezinik. Ez zion begiratu beharko, mutil hura bera baino nabarmen zaharrago baitzen, baina gorputzaren kilika, beti bezala, gailendu egiten zitzaion amaren errietei.

Mutilak irribarre egin zion, burua makurtu zuen Mariak, lotsor; baina bere golkorako "begira iezadazu horrela!" pentsatuz. Mutil horrek begikune zuzen-zuzena egiten zion beti, lotsabakoa ia, eta Mariak sano gustuko zuen. Hala begiratzen ziola konturatu zenean, zur ibiltzen zen mutil hura inguruan ote zebilen ikusteko, berak ere begitxoak jartzen zizkion eta. Alde egin zuen mutilak. Inozkorik hurbilenezik begiratu zion, leihoaren ondo-ondoan jarri zitzaion, eta kilima bat igarri zuen Mariak sabelean. Gero, mutilak alde egindakoan, suzko mingaina hasi zitzaion hankartean kilika berriro. Arnasa estutu egin zitzaion pitin bat, lanari ekin zion, baina ezinegon hori itsatsita geratu zitzaion.

Gauean, Isabelekin partekatzen zuen ohantzean, hankarteko kilikari men egin zion, behingoz. Hori lehenengoz egin zuenetik, barne borroka jasan ezinezkoa izan zuen, txarra eta zikina omen den hori berriro dastatzeko grina bizia nagusitu zitzaion. Eskua pubis inguruan jarri zuen, aluan, eta igurtzika hasi zen; esku-ahur guztiarekin lehenengo, fereka leunak hankartean goitik behera. Arnasa estutu egin zitzaion, bularra airez betetzean bular tontoretako titiburuak gogor igarri zituen. Begiak itxita, sentipen berri horiek guztiak, ez-tizko grina horren zirrarak, antzeman zituen azalean zehar. Urrats bat harago egitea erabaki zuen, eta erdiko hatzarekin aluko ezpainak alboratu eta igurtziak umeldu egin zitzaizkion. Astiro-astiro ekin zion, arnasestuari eusten, Isabel esnatu ez zedin. Atzamarra mihiarekin busti eta alura eraman zuen behin eta berriro. Ikaraldi bortitz batek bernak gogortu eta beheko ezpaina hagin artean sarrarazi dio. Irakaldi batek astindu dio gorputza, eta Isabel itzartu egin da. "Zer duzu, Maria?", galdetu dio; "Ezer ere ez, ametsetan egin dut! Lasai, egizu lo!"; "Seguru? Estu igartzen zaitut"; "Amets gaiztoa izan da, besterik ez".

Lehenengo eguzki printzak agertu orduko jagiten zen egunero, baina egun hartan amak itzartu behar izan zuen. Loaldi gozoa izan zuen, eta aspaldiko partez hankartean igartzen zuen suzko mingaina desagertu egin zen. Pozik itzartu zen. "Ea, bada, jagi!", esan zion amak, "Noiz arte egon behar dun, bada, ohean! Hainbat zeregin zaukenagu".

Moteldu barik areagotu egin zitzaion Mariari jolas hartarako grina. Desposatzekotan zirela, gurasoek antolatuta zuten ezkongaien arteko bisitaldia eraman ezina egin zitzaion. Neguko zapatu batean izan zen bisitaldia, behin zapatuak eskatzen zituen sinagogako zereginak amaituta, emaztegiaren etxean. Halako iluntasunarekin —etxe barruetan ere olioz

elikutatuko kinkearen argitasun eskasa baino ez zegoen—, sugarraren osteko itzaletan bere irudia eta begikune zuzena egiten zion mutilarena irudikatzen zituen nahasian, elkarri josiak, belarri ondoan xuxurlatutako berba artean, suzko mingainez gorputzean iltzatzen zitzaizkien berbak. Barneak eskatzen zion askatasunaren orde zuzenaren elkarrizketa astunak jasan behar izan zituen, eta aurrean zeukan mozoloa, senargai aspergarria, behin ere ez zuen harrapatu berari papar aldera edo ipurdi aldera begira. Berak ere hari begira ez zuen egundo hankartean kilika berezirik edo titiburuetan tentetasunik igarri. Beste auzune batekoa izan arren, etxe aurretik gero eta sarriago igarotzen zitzaion mutikoa bai bizkorra. Hura bai hura! Haren behakunea bizia zen oso, eta lizuntxo ere bai, eta lizunkeria kutsu horrek erakargarriago egiten zuen; ez zuen sekula harekin berbarik egin, baina atsegina eta barregarria izan behar zuen, inondik ere. Eta desiragarria! Oheratutakoan ere, gero eta sarriago azaltzen zitzaizkion mutil haren irudiak, eta hasia zen hile batzuk lehenago halako irudiekin olgetan, begiak itxita, eta eskuak jostari; bata, halakoetan hankartean pizten zitzaion kilikan hazka; eta bestea, titiburuetan biraka.

Neguko hileetan zuhaitzak inausi egiten zituzten inguruko gizonezkoek, udaberrian sendo eta osasuntsu hazi ez ezik, egur gutxiago eta fruta gehiago eman zezaten ere. Fruta-erbolak, olibondo, mahatsondo eta ahora eramateko moduko edozer ematen zuen landara oro araztu egiten zen. Gizonezkoen lana izaten zen beharleku gogorra baitzen, zeregin horretarako erabiltzen zen tresneria ere bakuna eta garatu gabea izanik. Ilbeheran ekiten zioten, goizean goizetik hasita iluntzera arte, eta amankomuneko lanak izaten ziren. Halako batean elkarren ondoan aritzea egokitu zitzaion Joseri eta behakune bizkordun mutilari —ez diogu izenik eman hirugarren protagonista den gazteari; utz dezagun, baina, munduko historia irauliko duenaren aitaren izena albo batera, eta aurrerantzean Bizkorra gaitzizena erabiliko dugu horri buruzko aipua egiteko—, eta Josek xehetasun horri ardurarik eman ez bazion ere, Bizkorrek bai; Bizkorrek, txitean-pitean, goitik behera begiratzen zion gizon baldar, dohakabeko hari, eta bere kolkorako pentsatu zuen: "Tokatu ere txerriari abanikoa!"; eta Maria irudikatu zuen mozolo horrekin alferrik galduta. Gero esku artean zuten zeregina samurra ez zen arren, kilikatxo bat etorri zitzaion hankartera Mariaren begirada, inozentzia galdu gabea eta aldi berean inozotasunik gabea, bere begiekin topo egiten gogoratzean, eta barne gogoetari ekin zion: "Harrapatzen badiat harrapatu, neuk aterako zioat etekina horri; nirekin ez duk alferrik galduko, ez!".

Maria amarekin eta gainerako andrazkoekin joan zen, gizonezkoak zeregin horretan zebiltzala, moztutako adarrak batzera; garrantzizkoa zen fruta-erbolak inguruak garbitzea, moztutako adarretan zomorrorik balego-edo. Bizkorrek urrutetik erreparatu zion neskatoari, eta neskatoak ere bai mutilari. Maria eta neska gazteak adar-batzen zebiltzala, amak eta gainerako andrazkoek ura eta jatekoren bat banatu zituzten gizonezkoen artean, eguzkiaren lehenengo printzak agertzearekin batera hasi baitziren lanean, eta luze egiten zen eguna. "Eramaion ur apur bat Joseri", amaren aginduak ezustean harrapatu zuen Maria; "Lotsa ematen dit, ama!"; "Ez dinat berriro esango!".

Mariak muturra okertu zuen, baina aldi berean Bizkorra-rengana hurbiltzeko parada aurkitu zuen. Pitxarra eta kaiku txiki bat hartuta gizonezkoek hurreratu zitzaion. "Urik nahi, Jose?", lehor galdetu zion; "Bai, eskerrik asko!", ura edan zuen, eta gaineratu zuen "Oso eder zaude, Maria", baina Mariak begirada desbideratu, kaikua urez bete berriro eta Bizkorra-ri eskaini zion. "Urik?" galdetu zion kaikua hurreratzen ziola, begietara zuzen begiratu, amaren iritiz lotsabakoa izango

zen 6 begiradarekin. "Eskerrik asko!", erantzun zion Bizkorrak esanahi ugari izan zezakeen irribarre batekin, eta begiak Mariarenetan iltzatuta.

Haren edateari begira geratu zen Maria sorgindurik. Mutilaren ezpainetatik ur haritxo bat atera zen, eta okotzetik beherako bidea egin zuen papar aldera. Maria tanta hari begira geratu zen, mingainaren puntarekin xurgatzeko gogoaz. Suzko mingaina azaldu zitzaion hankartean, eta bihotzaren taupadak edonork entzuteko moduan bizkor-tu zitzaizkion. Gorputza bizkor biratu eta pauso azkarrez aldendu zen, Bizkorra haren aldakei begira zuela, eta Joseri jaramonik egin gabe.

Inaustea amaituta, zomorroak uxatzeko erritoari ekiten zitzaion eta inauteria hasten zen. Gazte zein heldu, neska zein mutil, denak nahasten ziren, denak zomorro bihurtu, aurpegiak estalita elkar ez ezagutzeko moduan, eta dantzari ekiten zioten eguzkiaren lehenengo errainuek zerua urratzen zutenetik, ortzimugak berriro irentsi arte. Halako jaietan zaila izaten zen gizarte maila arteko banaketarik; ez baldin bazen, aberatsaren mozorroa txiroarena baino dotoreagoa zela, jakina. Gainerakoan, nahastea izaten zen herritarren artean, jende anabasa, albokoa ez ezagutzeak sorrarazten duen kilika atseginak bildua. Halako egun baten sortu zen *Misterioa* munduan. Maria berandu etxeratu zen egun hartan. Estu zegoen ama. Haren adineko guztiak ikusi zituen etxeratzen; mozorroak gorabehera, bazekien nortzuk ziren gazteak aurpegia estaltzen zien oihal azpikoa ikusi barik ere. Mariaren lehengusina Isabel ere estu zegoen, bazekien-eta amak dozena bat zaplazteko prest zituela neskato gaztearentzat, etxeko atetik azaltzeaz batera. Aita lo zegoen, lasai asko. Amak bere buruari galdetu zion nondik sortu ote zen alaba hura hain moldakaitz; eta familiaren genealogia guztia ere aztertu zuen, haren moduko arrastorik aurkitzekotan, ezin baina halakorik aurkitu. Gazteen belaunaldi berriak desberdinak zirela, eta nahi zuten guztia lortu behar zutela, beste azalpenik ezin zion aurkitu nahikunde hari.

Goizetik kaleratu ziren txirula joleak, euren soinuarekin jendea biltzeko, eta haien atzetik hasi zen jendea etxeetatik irteten eta elkarrekin batzen. Mariaren etxe aurretik igaro zirenean, gurasoen atzetik irten ziren Maria eta Isabel. Landa ingururantz abiatu zen jende multzoa dantzaz, soroetan eta fruta arbolen artean algaraka, zomorro bihurtuta etorri zitezkeen bestelako zomorroak uxatzeko.

Erritu guztietan bezala, baina, ardoa protagonista izaten zen egun hartan. Mahats-biltze garaian ere antzeko ospakizunak egiten zituzten, eta jai horrextatik ikasi zuten zein lagungarri den ardoa, zorionaren eta algaren bideak askatzeko. Dantzaren eraginez areagotutako berotasuna freskatzeko zahatoen edukia murriztu egin zen, noski; eta zahatoen edukia murriztu ahala norberak betetzen duen zoko ekologikoa hedatuz doa, eta gainontzekoena ere geureganatu egiten dugu, eta hala uzta oparoaren aldeko erritu zena parranda hutsa bilakatu zen; ez gaur egungo gau-pasa zoroetakoa, baina bai orduko denboran eguna ez-ohiko orduetara luzatzeko bestekoa. Iluntzearekin batera suteak piztu zituzten inguruko aireak ere arazteko, eta purifikazio erritu hartan elkarri eskutik heldu eta suaren inguruan hasi ziren dantzaz. Eta jakina, behin gaua sartua, dena nahastua.

Bistan denez, hasieran, aipatu dugun bezala dantza eta algara, barrea eta kasuren batean irribarrea. Egunak aurrera egin ahala, baina —eta zahato barruak hustu ahala, hoba ez—, bada barrea negarrarekin trukutzen duenik, eta algara haserrearekin. Erraza da deduzitzen, borrokaren bat edo beste sortuko zela, eta hori bezain ondorioztapen erraza da pentsatzea erdi kokoloa denak guztiz kokolotuta amaituko zuela eguna; baina baita bizkorra denak aterako zuela etekinik ere anabasa hartatik. Halaxe gertatu zen, bada, gure protagonistetako birekin. Jose erdi kokoloa bazen, zeharo kokolotu zen iluntzerako; Bizkorra, aldiz, bizkor beti, eta gau hartan azeria baino zuhurrago ibili zen. Zuhur ibili zen hasiera-hasieratik, mozorroaren andana herritik soroetarantz abiatzearekin batera hasi zen neska guztiei hurreratzen, eta luzaro barik ibileratik eta usainetik igarri zion Mariari; haren keinu eta mugimendu guztiak ondo aztertuta baitzituen, eta hoba ez, haren usaina, haren etxe ondolik pasaeran sumatzen zion lurrina.

Dantzaldian Bizkorra bizkor ibili zen Jose mozoloaren aldean, eta Mariaren eskuari heldu zion. Hura izan zen gazte bien arteko lehenengo kontaktu fisikoa, eta Bizkorren erpurua Mariaren esku-bularraren gainean ferekatxo xume bat deskribatzen hasi zenean, bien arteko lehenengo zirria sortu zen. Mariak ezin zuen jakin kilika hura sorrarazi ziona zein ote zen, baina tximeleta andana bat hegaldatu zitzaion urdailean ezezagunaren laztan ezkutu hura igartzean.

Txirula joleen azken musikarekin amaitu ziren dantzak, gauaren lehenengo zantziek irudiak eta formak ardoak baino areago difuminatzen zituzten tenorean. Zomorro anabasa apurka-apurka herrirako bidean jarri zen, eta ardoaren eraginez mozolotuenak arbolen baten pean geratu ziren. Jose ez zen kapaz izan Maria mozorro andana hartan bereizteko; zahatoari heldu zion behar baino gehitxoago, eta zurrungaka geratu zen arbola baten pean. Bizkorrek dantza plantak eginez eskutik helduta zuen neskari estuago, eta albo-alboan jarrita aurpegia estaltzen zion mozorroa zertxobait altxatu zuen, neskatoak mutilaren begiaren kliska ikusteko beste, eta iluntasunak eta ardoak eragindako nahasmena lagun, neskaren eskua askatu barik eta dantza plantak eginez, soro arteko bazter batera joan ziren isilka. Bazekien Mariak, ondo jakin ere, ez zegoela ondo neskak larrinean eta soroetan ibiltzea eguzkia zeruan ez badago, bazekien txoriak lotara joanak zirela, bazekien tenore hartan larrinean ibiltzeak hainbat neskato galbidera eraman zuela; baina eskutik heldu zion mutilaren fereka esku-bularraren sentitzeak hankarteko suzko mingaina berpiztu zion, eta haren aurpegia ikusi zuenean, bihotza edonork entzuteko moduan jarri zitzaion atzera, taupada ezin bortitzagoak eta kontrol bakoak eginez.

Olibondo baten abarrea hartu zuten ohantze; eta bertan aurpegiko mozorroak erantzi barik ere, mutila gainean jarri zitzaion, eta neskaren gorputza goitik behera estaltzen zuen tunika goratuta, bernak, izterrak, gerria eta hainbeste amets eragin zioten titiak agerian geratu ziren, eta gorputz nerabe haren zurtasunak liluratuta, aurpegia ostentzen zion zapia erantzi eta "Neu naiz" esan zion Mariari, eta Mariak ere arnasestuka eta itolarrian aurpegi gaineko mozorroa erantzi behar izan zuen hasperen artean itoko ez bazen, eta eskua mutilaren tunika azpitik sartuta haren kirten goriari heldu eta biek batera instintiboki, gaztetasunaren kemenari uko egin ezinik, aurreranzko bulkada bortitz bat egin zuten elkarren hankarteko organoetatik lotuta geratu ziren arte; eta orduan argi itsugarri bat azaldu zitzaion Mariari begietan, eta aurrean zeukan mutilaren aurpegia bolatilizatu egin zen suzko eta argizko laino hartan. Uso zuri bat olibondoaren adar

baten pausatu zen, Mariari zuzen begira. Segundo batez harengana joan zitzaion begirada Mariari. Eguzkia urrutiko muinoaren ostean ezkutatu zen une berean azken printzak usoaren hegoak argitu eta suzko bihurtu zituen. Azkenik, Maria aieneka eta aiamaka gerria astintzen ari zela, hustu egin zen mutila biriken barrenetik zetorkion orroa batekin, eta tarte labur baten muturra Mariaren titi artean sartuta, adurra dariola, atsedean hartu zuen. Mariak hasperen egin zuen instant berean usoa hegaldatu egin zen.

Munduko bularrak epelenean lozorroan zegoela, asaldatu egin zen bat-batean Bizkorra, baten batek ikusi ote zituen ikarak hartuta; altxatu egin zen, eta mozorroa jantzi zuen arineketan ospa egiteko. Begi traidoreak, ordea, Mariaren gorputz biluzirantz limurtu zitzaizkion, goitik behera begiratu zuen haren titien zurtasuna eta tentetasuna, haren alu iletsua, haren desioa ezpainetan... eta halako grina sortu zitzaion atzera, halako gogortasuna erne zitzaion zakilean, ze ospa egin beharrean, balizko begi zelatariez ahaztuta, berriro ere erantzi, Mariari titien gaineraino igota zeukan tunika erantziaz eta bereganatu egin zuen osteria ere. Bigarren aldia ederragoa izan zen, gorputz gazte biak zuhaizpeko belarretan narraz, bata bestearen gainean, aldian mutila, aldian neska; elkarren gorputzak jan guran, elkarren sexua ahoratuta guran. Bigarren hodei batek suz eta argiz estali zituen Mariaren begiak, barreneko intziri batek kanporatzeko ahaleginean eztarria urratu zionean; Bizkorrek bigarren orroa bota zuen, adurra dariola Mariaren bular gainean, amaren titiaren bila dabilen haurtxoaren modura.

Zuhaitz haren azpian, erein zuten hazia; ez zekiten, ordea, hazi horrek erneko zuen gizakiaren sustraiak munduan zehar hedatuko zirela; are gutxiago, sustrai horiek erneko zituzten adaxkak huntzorri igokariarenak baino ugariagoak izango zirela.

Belu etxeratu zen Maria, gaua ondo sartua eta ilun zegoela, arropak zarpailduta, ilea desitxuratuta, aurpegia zurbil. Ulertzeko da zurbilduta, etsituta geratu izana, garbi ikusi baitzuen senargai zeukan gizon mozolo hark ez ziola Bizkorrek eman berri zizkion astinaldiak emango, berak ere ez ziola gerriari grina berarekin eragingo, ez zituela atzazalak inkatuko gizon haren izter eta bularrean inkatu zituen gogoarekin, ezteien ostetik ez zitzaizkion berriro suzko hodeia agertuko, eta ez ziola begirada plazerez itsutuko.

Ama zain zeukan, kopetilun, "Non ibili haiz, lotsabako hori!", galdetu zion sasoi hartako edozein ama ganorazkok egingo zukeen moduan; besoa jasota, ukabila ondo estu, alabaren aurpegia zartatzeko. "Erdi bidean harrapatu nau, eta biluztu egin nau, eta bereganatu egin nau", Mariaren adierazpenak bat-batean geldiarazi zuen amaren ukabila. "Zer dion galdu horrek!"; "Zoragarria izan da, ama; liluragarria!", fisikoki mundu honetan dagoen, baina arima eta izpiritua beste non edo non —gizakiontzat eskuraezin den lekuren baten— duenaren antzera egin zuen berba, misterioak bereganatutako ahotsarekin, gizakiok ezin artikulatu genitzakeen doinu eta tonuarekin. "Nor izan dun halakorik egin dinan madarikatu hori! Jose, akaso!"; "Ez zaitez inozoa izan ama, Josek jakin ere ez daki horrelakorik egiten! Argi eta suzko hodei bat jaitzi da zerutik, hurreratu eta itsutu egin nau, eta bere egin nau"; "Ez ezan Jainkoaren izenik alferrik erabili, berba-gaitzo horrek! Ondo dakin-eta jakin Jainkoaren agerkunde delo suzko hodeia"; "Jainkorik ez, aingerua agertu zait niri, ama, aingerua! Uso zuri itxura hartuta. Besterik ez zitekeen izan", zotinka amaitu zuen esaldia Mariak, negarrari eutsi ezinik, ezagutu zuen argiaren ez bezalako etorkizun grisak hartu baitzion begikunea.

Historiak diosku, edo istorioak, Mariaren semea etorri handiko gizakia izan zela; bistan da beraz, ez zela Jose mozoloaren ezpalekoa, eta aitatara egin zuen, inondik ere. Josek, mozoloen artean mozoloena, ontzat hartu zuen Mariaren bertsioa eta sinesgarritasuna eman zion *Misterioari*. Jakin ere, bazekien genealogian bazuela horrelako kasurik, eta Abraham izeneko arbaso baten emazteak, Sarai izeneko batek, antzu izanik, semea ekarri zuela mundura aingeru bik Abrahami horren berri jakinarazi ostean. Ez dakigu sexu harremanik izan ote zuen Mariarekin, ez baita inongo Eskritura Santutan Joseren aipurik Mariaren birjintasun galerari buruz; beraz, ezin jakin Mariak penetraziodun beste sexu-harremanik izan ote zuen, edo bere sekretua misterioz janzteko sexurik bako betiereko penitentzia egin behar izan ote zuen.

MENDIA

Kolazino Mendi Eguna ez da egingo 2021ean**Erredakzioa**

Kolazino Mendi Eguneko antolakuntzeak 2021eko edizioa ez antolatutea ebatzi dau, COVIDa-gaitik bizi dogun egoeran, ikusle, parte-hartzaile eta boluntarioen "segurtasun osoa" ezin dala bermatu eretxita. 2020ko martiaren 23an zan ospatzekoa V. Kolazino Eguna, baina bertan behera geratu zan itxialdiak harrapatuta. Kirol probak, mendi lasterketa, BTT lasterketa eta mendi martxea izaten dira egun horretan.

Kirol probez gainera, egun osoko jaia izaten zan Bediarentzat. Partaideak eta eurakaz joandakoak alkarregaz bazkaltzen eben eta musikea, umeentzako jolasak eta ekintzak egoten ziran egun osoan. Aurreko egunetan be antolatuten ziran mahai-inguruak parte hartuko eben izen handiko mendi lasterketariakaz. "Gure filosofia herritik eta herriarentzat dala aintzat harturik, Kolazino Mendi



Eguna festa egun bat izan da herri eta herritarrentzat; hau da, kirol probez gainera, bazkari herrikoia eta erromeriaz gozatu izan dogu, eta hurrengo edizioetan be hala izatea gura dogu. Persona talde

handietan segurtasun neurriak betetea ia ezinezkotzat jotzen dogu" azaldu deutsee lasterkariak zuzendutako mezu baten. Ahalegin guztiak 2022ko ediziora bideratuko ditue antolakuntzakoak.

MENDIA

Bigarren kanpamentura igoteko lanean dabil Alex Txikonen espedizioa**Erredakzioa**

Urtailaren 29an, Manaslura igoteko Lehenengo kanpamentuan (5.800 m.) egoazan Alex Txikon eta bere espedizionokideak, Bigarren kanpamentura igoteko estrategia barri baten bila. Izan be, Lehenengo eta Bigarren kanpamentu artean dagoan arrakala handi batek beste bide bat bilatzera behartu ebazan.

Bigarren kanpamentua 6.500 metroko altueran ipini behar da

eta horretarako arrakala "handi eta itsusi bat" gaudituz behar da. Horretarako eskailerak behar ebezan, baina eskailerak eroanda be, pasau ezina egin jakien mendizaleak hasieran. Hori dala eta, bueltau behar izan ziran Lehenengo kanpamentura beste bide bat bilatzeko.

Urtilaren 31n, Alex, Cheppal, Kaldem eta Namja 6.100 metro-tara egon ziran bidea ekipetan. Lanak egiteko erreleboa Simone Moro, Tenzing, Vinayak eta Gelum hartzekoak ziran.



GURE HELBURUA
EZ JAKELA EZER FALTA
...ETA BATEZ ERE MAITASUNEZ, MAITASUN OSOZ

JANDONIZ
nagusientzako etxea
residencia para mayores



EGONALDI IRAUNKORRAK ETA ALDI BATERAKOAK

Jandoniz, 2 · 48390 BEDIA · tel. 94 631 31 30
www.residenciaparamayoresjandoniz.es

ARRETA OSOA:

- Lagunduta
- Dementziak
- Fisioterapia- errehabilitazioa
- Zainketa aringarriak
- Post-ebakuntza errekupezioa

TALDEA OSATZEN DU:

- Medikua
- Erizaintza
- Fisioterapeuta
- Psikologoa
- Lanbide-terapeuta
- Animatzaile soziokulturala

GAINERA DAUKAGU:

- Ile-apaindegia
- Podologia
- Masajista



PELOTEA

Etxebarria ezin hobeto



Oier Etxebarria.

Erredakzinoa

Partidu guztiak irabazten jarraituten dau Oier Etxebarriak. Urtailaren 30ean, Iruñeako Labrit frontoian, Salaberriak eta Igorrekoak, Alberdi eta Salaverri II izan ebezan aurkari, eta partidua 22-13 irabazi eben. Holan, jokaturako bost partidua irabazita, Binakako Promozino Txapelketako lehenengo postuan jarraituten dabe.

Hurrengo partidua Zeanurin jokaturako dabe Salaberriak eta Oier Etxebarriak zezeilaren 8an.

Elezkano

Danel Elezkanok eta Zabaletak barriz, ordurarte be partidua guztiak irabazita euki arren, galdu egin eben Labriten Peña II. eta Albusuren kontra 20-22.

Ha-ta guzti be, 2021eko Binakako Txapelketako Lehen Ligaxkako Saillkapeneko goian jarraituten dabe Elezkanok eta Zabaletak.

MENDIA

Hamaika mendi helburu solidario bategaz

ZeberioXTrem BTT martxeak, Alboko Eskleriosi Amiotrofikoari (ELA) ikusgarritasuna emoteko, ZebEriogaiLurretAtik izenpeko mendi proba bat abiatu dau.



Erredakzinoa

Partaideak, antolakuntzak emondako zintzilikario bategaz, ZeberioXTrem-en Facebook-era igo behar dabe. Probak urte osoan iraungo dau.

Ekimena igazko abenduaren 27an ipini zan martxan. Mendietara bakotzak gura dauan lekutik igo daiteke baina antolatzaileak emondako ordenean egin behar dira. Argiñako Atxa, Mandoia, Tontor Handi, Upo, Artanda,

Untzueta, Arrugaeta, Aizbelaga, Garaigorta, Pikubikotx eta Murga dira.

Alboko Eskleriosi Amiotrofikoa

ELA gaixotasun hilgarria da eta ez dago sendabiderik. Mobimentuak kontrolatzen dituen nerbio-zelulak eragiten deutse eta gaixoa ibili, berba egin eta jateko gaitasuna galtzean joaten da. Estaduan 4.000 lagun baino gehiagok sufriduten dabe gaixotasun hau. ELAK hiru persona hilten ditu egunean.

PELOTEA

Ruiz de Infante Bizkaiko txapelkunorde

Olatz Ruiz de Larramendik eta Ainhoa Ruiz de Infantek Bizkaiko Txapelketako finala jokatu eben Leire Garai eta Maite Ruiz de Larramendiren kontra, 22-18 galduz. Aldayk eta Orbegozok hirugarren postua lortu eben.

Erredakzinoa

Partidu gogorra izan zan Bizkaia Txapelketako finalekoa. Hasikeran gorriak irabazten hasi baziran be, Ruiz de Larramendik eta Ruiz de Infantek, aurrea hartzea lortu eben, markagailua 14-16ean ipinita. Atzenengo zatira arte, estu joan zan partidua, 17an bardinguta egoan markagailua, eta ez egoan jakiterik ze bikotek lortuko eban garaipena. Baina handik aurrera, Leire Garai eta Maite Ruiz de Larramendi izan ziran nagusi eta lortu eben txapela etxera eroatea.

Ainhoa Ruiz de Infantek Dimako Txumuluxueta Pelota

Klubean entrenetan dau.

Dimoztarra hirugarren

Amaia Aldayk eta Oihana Orbegozok, Olatz Arrizabalaga eta Naroa Agirireren kontra jokatu eben hirugarren eta laugarren postuak ebazteko partidua. Amaia Alday dimoztarrak, sano partidua on egin eban eta puntu asko lortu ebazan. Holan, 22-17 irabazi eben Aldayk eta Orbegozok III. Bizkaia Txapelketako hirugarren postua lortuz.

III. Bizkaia Txapelketea Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu dau. Urtilaren 8an hasi zan eta, lau jardunalditan, 12 pelotarik hartu dabe parte.



Olatz Ruiz de Larramendi, Leire Garai, Maite Ruiz de Larramendi eta Ainhoa Ruiz de Infante.

Guztiak hurrengoan: 94 631 73 14 eta 949 979 112
Publizitateak: 949 979 115

begitu

begitu@topagunea.com www.begitu.org

belagorri

mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzat elkagaiak
estetiziana

Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Behar duzue jabetza *Behar duzue proiektu*

-Solentzen zein alokairuan
Lurrak (erakiteak, landak, basoak...)
Etebiziak (puzak, baserriak, etxeak...)
Gardeak
Lanari komertzioak
Publikoak...
-Balarazioak

-Erakite berrak erakitzeko
Eneformak
AAItole-proiektuak

-Gara diseinua
-CEE eta IFE-ak
-Hingintza ohikularitza
-Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Urteberrirako Agirre 22. Solentzen - Igorre
Agirre 24 481 51 89 - 455 96 21 21
94 631 14 39 eta 94 631 14 39
48150000 475 705 101
arratia@arratia.com

Arrebiako Herri Eskolakoak

Gure
irastetxeak

Euskalduna
kalidazkoak
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezuuntza
Lehen Hezuuntza
Darrigorrezko Dagarren Hezuuntza
Datxilergoan
Hezuuntza Zuloan

2 urtetatik 18ra

ANTZERKIA

Zuhaitz Gurrutxagaren
FutbolisTOK bakarrizketea
Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Zezeilaren 6an, 19:00etan, ikusi ahal izango da Lasarte Aretoan Zuhaitz Gurrutxagaren bakarkako bigarren lana. Zuhaitz Gurrutxaga *Herri txiki infernu handi* ETBko saioaren aurkezleetakoa bat eta futbolari izandakoa da, beste talde batzuen artean Real Sociedad eta Lemoan jokatuakoa.

FutbolisTOK ikuskizunean, *Futbolista baten konfidentziak* bere lehen bakarrizketako lanetik hainbat pasarte berreskuratzen

ditu, eta atzen hamarkada bietan, goi mailako futbolearen, umoregintzan, telebistan, antzerkian eta musika munduan bizi izan dituan hainbat esperientzia kontauko ditu. Umorea erabiliz, eguneroko bizipenak eta gorabeherak erlatibizatu eta nor bere buruaz barre egitea bilatzen dau. Era berean, jentaurrean lehen aldiz, *TOC* edo nahasmendu obsesibo-kompulsiboa izeneko gaixotasunaz berba egiten dau, lehen mailako futbolari bihurtu zanetik lehen persolan sufridutea tokau jako-eta.



MUSIKEA

El inadaptado filma
Igorreko Zineklubean

Erredakzioa

Zezeilaren 4an, 19:00etan, Jens Lien-ek zuzendutako *El inadaptado* 2006an filmautako Norvegia eta Islandiaren koprodukzioa egongo da ikusgai Lasarte Aretoan.

Per Schreiner-en gidoiagaz filma, kosumo gizarteari kritika egiten deusnan komedia distopikoa da. Pelikuleak erakusten dau ze distopia dan gizarte kapitaliste-

tako larregizko adiskidetasun fikzioa, norberekeria, alkartasunik eza eta sozializazio falta erreala.

Sinopsia

Andreas, zelan jakin barik, uri bitxi batera heldu da. Lana eta etxea be baditu, baina zeozer ondo ez doala konturatzen da. Inguruko jentek hutsa eta azalekoa dirudi, eta holango bizitzeari iges egiteko ahaleginean porrot egingo dau.



SAN BALENDIN

Eleizondoko (Zeanuri) bizilagunak
bakarrik hartuko dabe parte San
Balendineko artearen neurketan

Zezeilaren 14an, domekan, San Balendin eguna ospatuko da Zeanuriko Eleizondo auzoan.

Jon Urutxurtu

Aurten ospakizunak, COVID-19aren aurrean jarduteko protokoloari jarraituko deutso eta beste urte batzuetako pertsonen kontzentrazioak saihestuko ditu.

Egitarauari zapatuan, zezeilaren 13an, emongo jako hasikerea, santuaren irudia Piedadearen ermitatik parrokiara eroanez. Eleizondoko bizilagunak modu pribaduan egingo dabe hori. Jarraian, baselizearen aurrean dagoan artea neurtuko dabe. Neurketea egin eta akta sinatu ostean, aurtengo maiordomoak, Xabier Intxaurreak, datorren urteko maiordomoari, Irantzu Aranari, pasauko deusaz akta-liburua eta ermitako giltzak.

San Balendin eguna

Domekan, san Balendin egunean, 11:30ean kanpai-hotsa izango da, mezara deitzeako. Kanpaiak eskuz joko dabez Pedro eta Jose Antonio Lejarza anaiak, Iñaki Lejarza parrokiako azken kanpai-jolearen semeak. 2000. urtetik era mekanikoan jotzen dira parrokiako kanpaiak.

11:30ean meza nagusia izango da eta mezaren ostean ez da jai ekitaldirik izango. Beste urte batzuetan, santuaren irudia prozesinoan eroaten zan parrokiatik Piedadearen ermitara, eta han hurrengo urtera arte ixten zan. Ondoren, artea neurtu eta bertaratutako artean barauskarria banatzen zan: urdaia, pamitxea eta

ardaa. Aurten ekitaldi horreetako batzuk aurreko egunera pasau dira edo bertan behera geratuko dira.

Artearen neurketea

Pedro Lejarza eleizondotarraren arabera, "Piedadearen aurrean dagoan artea, lehenago leku berean egoan beste baten ordezkia da; 1958 urtean landatu eben gure aurrekoak. Hurrengo urteetan, San Balendin egunean edota San Balendin eguna ospatzen zan domekan, batzuetan bazkalostean, eta beste batzuetan afalostean, jai giroan, bolanderak botaz, bertoak abestuz... artea neurtu egiten eben. Neurtzeaz Gorordo baserriko Zeferino Lejarreta (+) arduratzen zan. Eta neurtu ostean, jai amaitutzat emoten zan. Zeferinoren koadernoetan lehen urteetako neurketen zehetasunak aurkitu doguz; lehenengo neurketea 1959koa da, eta zera irakurri daiteke bertan: *La medida de la encina de la Piedad, en los*

años medidos. Grueso a la altura de 1,50: 0,18. Tradizino hau apurka-apurka galdu egin zan eta azken neurketea, Kandido Intxaurreak (+) egin eban 1999an; papertxo batean zera idatzi eban: Piedadeko artea. 99-2-14. *A 1,50 circunf.: 1,50*".

Aurrekoak hasitako ohiturea ez dabe galtzean itxi gura eleizondotarrak, eta Pedro Lejarzak dinoanez, "2007an neurtzen hasi ginan barrero, eta 2008an neurtzeaz gainera, agiri-liburua zabaldu genduan, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatuz. 2008an, Piedadeko artearen neurketea hasi zanetik 50 urte beteten ziranez, ofizialtasuna emon gura izan geuntsan ohitura bitxi honeri, aurrerantzean be jarraipena izan daian". Igaz arteari hartutako neurria honako hau izan zan: 190,50 cm-ko perimetroa 150 cm-ko altueran. Zein izango ete da aurtengo neurria?



LIBURUA

Joanes Urkixoren *Orratza eta kaltea*
liburuaren aurkezpena Artean

Erredakzioa

Zezeilaren 11n, 18:30ean, Joanes Urkixo idazleak bere azken liburua, *Orratza eta kaltea* (Elkar, 2020) aurkeztuko dau Arteko Kultur Etxean. Izena alde zuzenetik emon behar da udaletxean.

Nobela baltz hau, Ondarroan, 1980ko hamarkadan dago giro-tuta heroina trafikoa gaia hartuta. Bertan, Guardia Zibilaren maniobrak, gameluen gorabeherak, heroinazaleen larritasunak eta trafikoa atzean nor dabilen

deskubridu gura dauan zinegotziaren ibilkerak kontetan dira.

Joanes Urkixo

Joanes Urkixo Beitia (Bilbo, 1955) idazleak ibilbide luzea dauka eta ia literatura genero guztiak landu ditu, haur eta gazte literatura batez be. 1980an, Toribio Alzaga antzerki saria irabazi eban eta 1983an, Eusko Jaurlaritzak sortutako kontakizun laburren Kirikiño saria. EIE euskal idazleen alkarteko eta Galtzagorri haur eta gazte literatura alkarteko

kidea da. EHGE-AGPEH euskal gidoilarien alkartearen sortzaileetakoa bat be bada. Berea da *Lasa y Zabala* filmaren gidoia.



LEHIAKETEA

Rafa Ugaldereen *Misterioa* lanak irabazi dau Arratiako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketerearen bigarren edizinoan

Bigarren, Karlos Aretxabaleta izan zan, Adiorik ez lanagaz.



Rafa Ugalde eta Karlos Aretxabaleta.

Erredakzioa

Igor Estankonak, Alvaro Rabellik eta Iratxe Retolazak osotutako epaimahaiak, hirugarren saria, Arratiako lanik onenarentzat izaten dana, ez emotea ebatzi eban. Izan be, lan saritu biak Arratiakoak izan dira; Dimara joan da lehenengo saria eta Bediara bigarrena. Saridunen barri, urtailaren 23an Lemoan egindako sari banaketan emon zan.

Lehiaketeak irauten badau, hainbat lan bildutakoan, lan sarituak liburu baten batu eta argitaratzeko asmoa dauka Zertu Kultur Elkarteak, Arratiako Kalenturak lehiaketerearen antolatzaileak. Horre-

tarako, bailarako udalen laguntzea behar dau, aurtan Lemoak eta igaz Igorrek emon daben moduan.

Lehiaketeak euskeraz irakurteko zaletasuna bultzatzeaz gainera, idazle barriak ezetuten emoteko eta ezagunak lan barriak argitaratzeko akuilu izan daiteke. Holan gertatu zan, Basauriko Euskarabila alkarreak antolatuten ebanean lehiaketea eta helburu horregaz hartu eutsan lekukoa Dimako Udalak lehenengo eta Zertu Kultur Elkarteak ondoren.

Sari banaketa ekitaldia

Sari banaketa ekitaldia eta ondorengo bertso-trama erotikoa ikus-

teko bete egin zan Lemoako kiroldegiko kantxea. Mainer Larrea Aretzakoak aurkeztu eban sari banaketea. Rafa Ugalde irabazleak, Aritz Undurraga Lemoako zinegotziaren eskutik jaso eban saria eta Karlos Aretxabaletak Irene Bilbao Zertu Kultur Elkarte-ko presidentearenetik. Ondoren, jostailu erotikoa bi zozketatu ziran; euretako bat, Sustrai Colina bertsolariari suertau jakon.

Suerte horrerik egin eutsan erreferentzia bertsolariak, tramaren aurretiko aurkezpen bertsoetan. Gero, Uxue Alberdik eta biak Arkaitz Estiballesek sortutako trama interesgarria gorpuztu eban euren bertsoakaz.

Trameak personaia biren bizitzak kontetan ebazan, euren gorabeherakaz eta bertsolariak umorea eta gatza eta piperra ipini eutseen fikzinozko baina oso benetakoak ziran bizitza horreei.

Rafa Ugalde

Lehenengo saria, Diman bizi dan Rafa Ugalde (Zornotza, 1961) idazle ezaguna eta sarituak jaso eban. Biologian lizentziaduna izan arren, euskera teknikaria da Zornotzan.

Literatura erotikoa ibilia da Ugalde. Euskerabilak antolatuten ebanean be irabazi eban lehiaketea. 2007an Txalapartak argitaratutako *Relax* ipuin irabazleen bilduman irakurri daiteke bere lan saritua. Lehiaketerearen lekukoa Dimako Udalak hartzeako, Rafa Ugaldek berak egin ebazan zubilanak.

2018an, *Hondar aleak* bere poesia liburu ederrak Blas de Otero Bilbo Uria Nazinoarteko Poesia Lehiaketea irabazi eban.

Bere beste lan ezagun batzuk, *Hamaika bizimodu* (2003, Ibaizabal), *Gorria eta beste kontaktuzun batzuk* (2005, Beta). Beste

idazle batzukaz batera argitaratutakoak, lehen aitaturako *Relax* (2007, Txalaparta) liburuaz gainera, *Gure gerretako heroiak* (2006, Elkar), *Erreka* (2011, Ibaizabal) eta *Baltzolako ipuinak* (2017, Ibaizabal) dira.

BEGITUN be kolaborazioak egin dituzte, batez be Lumatuten sailean.

Karlos Aretxabaleta

Arratiako Kalenturak lehiaketerearen bigarren edizinoan, Karlos Aretxabaletak (Kigali, 1990) saria irabazi dau bigarrenez. Izan be, lehenengo edizinoan Arratiako lan onenari saria jaso eban *Ortizmugan larrua jo leike* narrazinoagaitik. Gaztezulo aldizkarian be argitaratu ditu ipuin erotikoa.

Gaztea izan arren, literaturan ibilbidea egin dau Bediakoak. Mikel Mansogaz eta Jon Amorrorturen ilustrazioakaz *Hitz margotuak* poesia liburu argitaratu eban 2016an.

Argia aldizkarian eretxi artikuluak idazten ditu, eta BEGITUKO kolaboratzailea be bada, Zertzean sailean, batez be.

DUNBA

COVID-19aren protokoloa eskoletan

Areatzako eskolea

Koronabirusa dala eta, eskole-tako egunerokoa asko aldatu da. Egoerak eskatuta, neurri barriak ezarri behar izan dira eskoletan.

Areatzako eskolako ikasleak, aldaketa ugari izan ditue egunerokoan. Urri lehenengoan eskolara bueltau ziran neurri berezi askogaz topo egin eban. Eskolako patiora heldu ziran lehenengo egunean konturatu ziran 5 gune desbardin egozala. Eta bost talde edo burbuila sortu behar ziralako eskolako egunerokoa, eta burbuilak alkarregaz hartu-emonik ezin ebe-la euki. LH3, LH2, LH1, HH4-5

urte eta HH2-3 urte ziran taldekatzeak. Eskola barrura sartzerako orduan eskaileretan, lurrean geziak markatu ikusi zituen, igoteko eta jaisteko norabideak adierazoten ebezanak, hau da alkarregaz topo ez egiteko. Gela barrura sartu orduko eskuak garbitu beharra, gel edo ura eta jaboigaz. Gelara sartu eta lehenengo gauzea tenperatura hartu, guzti hau gelako leihoak ondo irekita aireztapena ziurtatu daiten. Eta zelan ez, etxetik urten bezain laster, prozesu hau guztiau mosukoagaz.

Hasikerako bildurrak eta ezjakintasunak apurka-apurka uxatzen joan ziran eta "normaltasun ba-



rria" aste gitxiren bueltan ohitu ziran. Euren lan metodologia ez eban aldatu eta proiektuakaz lan egiten jarraitu eban. Animaliak

proiektua landu eban lehenengo hiruhilekoan. Eta kontinente bakoitzean bizi diran animaliakaz egindako maketa batzuk egin

ebezan. Hau guztiau eskalara, bai kontinenteak eta bai animaliak. Lan hau egiteko ikerkuntza lan bat egin eban aurretik eta eskala zer dan ikasi, ondoren.

Garai barriak etorri jakuz, danok errespetau behar doguzan neurriakaz. Aurrera egin behar dogu ahal dan neurrian. Alkar zainduz eta errespetauz normaltasun barrira egokitu behar gara. Espero dogu denpora labur baten hau guztiau atzean geratzea eta lehenengo eskolaz gozatzeko aukerea izatea.



AGENDA

ZEZEILAK 2
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelheenetik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

AREATZA

Negu osoan zehar geolokalizazio jarduerak. Aukeratu Gorbeia Parkeko zonalde bat, koordinatuak jarraitu eta saiatu proposatutako puntuak aurkitzen. Materiala emailen bidez edo Parketxera hurbilduz eskuratu daiteke.

ARRATIA

Areatzan eta Lemoan Berbalagun egitasmoan bidelaguna izateko izena emon 662 199 033 telefono zenbakian edo arratia_berba@aeek.eus helbidean.

IGORRE

Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo liburu.igorre@gmail.com helbide elektronikora idatzita. Astelhehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

Zezeilaren 7an izango dan *Elikagaiekin jolasean* saiorako izena emoteko epea zabalik maratu.igorre@gmail.com eta 688 898 765 telefonoz zezeilaren 3ra arte.

LEMOA

Liburutegia zabalik arrastiko ordutegian, astelheenetik barikura 16:30etik 19:30era Kotxepin Kulturgunean. Liburuak maileguan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

09:00ak arte, zezeilaren 6ko Gozategiren kontzerturako eta hilaren 13ko *Inauteriak piztuz familian* jarduerarako izena emoteko atzen eguna www.lemoa.net webgunean.

Hilaren 4ra arte, izena emon 4 eta 12 urte bitarteko umeak superheroien mozorroa egiteko www.lemoa.net helbidean.

ZEZEILAK 3
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 12ra

arte, Udalak eraturako ikastaroetan izen emotea Liburutegian. Ikastaroak: *Marrazketa*, *Baratzea prestatzeko oinarritzko ikastaroa* eta *Oinarritzko arretak: mobikortasun urriko adinekoak eta mendeakoak*.

LEMOA

Hilaren 10era arte, zezeilaren 14an kiroldegiko kantxan izango dan Tio Teronen semeak-en *FreshCool* ikuskizunerako izen emotea www.lemoa.net webgunean.

ZEANURI

17:45etik 19:45era, *¡Va por ellas!* ikastaroko saioa Kultur Etxean.

ZEZEILAK 4
IGORRE

19:00etan, zinekluba, Jens Lien-en *El inadaptado* Lasarte Aretoan.



Gozategik kontzertu akustikoa emongo dau Lemoan

Zezeilaren 6an, 19:00etan, Gozategik kontzertu akustikoa eskainiko dau Lemoako kiroldegian. Trikitixa eta erronomia soinuak ekarriko dauz taldeak kiroldegira. Izena zezeilaren 2ra arte emon daiteke www.lemoa.net webgunean.

1995ean, kaleratu eban Gozategik bere lehenengo diskoa, *Gozategi* (1995, Elkar) baina ordurako ezaguna zan taldea, maketan, Manolo Escobarren kantan oinarritutako *Nor-nori-nork* kantuagaitik. Arrakastarik handiena, dana dala, *Ainhoa* (1996, Elkar) diskoagaz eta hango *Emoixtaxu muxutxuek* kantuagaz lortu eben. Ondoren, *Kalanbreak* (1998, Elkar), *Egunon* (2000, Elkar), *Goztg.kom* (2006, Babelmusik), *Bizi-bizirik* (2010, Babelmusik), *All Stars 1992-2012* (2012, Elkar), *Zuzenean 25 urte* (2017, Kortanbekaru) eta *G puntua* (2018, Elkar) kaleratu dabaz. Egoera barrietara egokitzen beti jakin izan dau Gozategik. Gure Zirkuan, zirkuko karpan, zirkuko aktuazioak batera kontzertuak emoten ditu oin, edo kontzertu akustikoak, barbarako.

LEMOA

18:00etan, Bego Tabera Osakidetzako langile eta LABeko delegaduren berbaldia *Zer gertatzen ari da Osakidetzan: murrizketak, pribatizazioak...* Karabie Gaztetxean.

ZEZEILAK 5
IGORRE

Arrastian, Zitada & Rlantz eta

Aiaraldeko taldeen kontzertua Kiñu Gaztetxean.

AREATZA

Nazionario Hezeguneen Eguna. Umeentzako ekintzak Parketxean. Izena emon 94 673 92 79 telefonoz edo gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus helbidean.

LEMOA

16:00etatik 20:00etara, *Gure gorputzera buelta!* Hilerokoaren kultura eta ekonomia feminista tailerra Enara Iruretagoienaren eskutik Kulturgunean.

19:00etan, Suger taldearen kontzertua Karabie Gaztetxean.

ZEZEILAK 6
IGORRE

19:00etan, *FutbolisTOK* Zuhaitz Gurrutxagaran umorezko bakarrizketea Lasarte Aretoan.

LEMOA

17:00etan, *Flor del desierto* pelikulearen emonaldia Gaztelekuan 12 eta 16 urte bitartekoentzat. Izena emon zezeilaren 2tik 5era arte, Instagramen: [gaztelekualemoa](https://www.instagram.com/gaztelekualemoa) edo 688 676 908 WhatsApp-ean.

ZEZEILAK 7
IGORRE

16:30ean, zinea, *El pequeño vampiro*; 18:45ean, *Hasta el cielo* Lasarte Aretoan.

17:00etan, *Elikagaiekin jolasean* Ivan Gomez Lopezegaz. 12-16 urte bitartekoentzat.



LEMOA

11:00etan, kanporamartxo Karabie zaharrear.

ZEZEILAK 8
ARANTZAZU

18:00etatik 20:30era, sukaldaritza begetariano, ekologiko eta osasungarri ikastaroa Kultur Guneko sutedean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, zezeilaren 17an izango dan *Etorkizuneko ikasketak aukeratzeko* orientazio berbaldirako izen emotea liburutegian.

LEMOA

Hilaren 11ra arte, 4 eta 12 urte bitarteko umeak Superheroien mozorroa sortu ludotekan.

ZEZEILAK 9
BEDIA

16:30etik 19:30era, zezeilaren 17an izango dan *Etorkizuneko ikasketak aukeratzeko* orientazio berbaldirako izen emotea liburutegian.

ZEZEILAK 10
ZEANURI

17:45etik 19:45era, *¡Va por ellas!* ikastaroko saioa Kultur Etxean.

ZEZEILAK 11
ARTEA

18:30ean, Joanes Urkixoren *Orratza eta kaltea* liburuaren aurkezpena Kultur Etxean.

ZEZEILAK 13
ARTEA

17:30ean eta 18:45ean, "Inauteriak eta musika", sorgina txirularen ipuin eta saio musikatua eskolan. Izena udaletxean emon.

IGORRE

18:30ean, Kantu Kolore Kultur Etxean. Izena emon behar da aurretik. Saioa bete ezker 16:30ean beste saioa bat egingo da. Doban.

Aratusteak Kiñu Gaztetxean.

LEMOA

11:00etatik 13:30era edo 16:00etatik 18:30erako txandan, *Inauteriak piztuz familian* ikuskizuna eta jolasgune hezigarriak kiroldegian.

ZEANURI

San Balendinen irudia Piedadearen ermitatik parrokiara eroan. Ondoren artearen neurketea. Aurtengo maiordomoak datorren urtekoari aktaliburua eta ermitako giltzak pasauko deusaz. Eleizondon.

ZEZEILAK 14
IGORRE

16:30ean, zinea, *Mi amigo Pony*; 18:45ean, *Perfumes* Lasarte Aretoan.



LEMOA

12:00etan, Tio Teronen semeak taldearen *FreshCool* umorezko jantza ikuskizuna kiroldegian.

ZEZEILAK 15
BEDIA

17:15etik 18:00etara edo 18:15etik 19:00etara, globoflexia tailerra umeentzako ludotekan. Hilaren 10era orduko emon behar da izena ludotekan.

begitu
ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be **Begitu-laguna!**

www.begitu.org

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

LANA

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizaua egingo deusut heziketa nutrizional, coaching edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: narao_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

TABERNAN LAN EGITEKO PREST

Astegoi eta jaiegunetan tabernan lan egingo neuke Arratia edo inguruetak herrietan. Arloan esperientziaduna naz. Interesautu egon ezker idatzi

konpromiso barik 619 893 185 telefonora.

LAN EGITEKO PREST

Nikaraguako andra heldua, lan egiteko prest. Persona nagusien zaintzan hainbat urte ibilitakoa. Behar izan ezker deitu 648 470 485 telefonora.

SALTZEAN DODAZ

Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modeloa, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1
Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera FutbolistOK antzezlanerako.

Koldo Zelestino (Dima)
Miren Garbiñe Etxebarria (Lemoa)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com



begitu

arratia
ubide
zeberio



BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAWKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

Hori egitegaitik **Garena** jatebixean lagun birentzako degustazino menua zozketatuko dogu aprilean.



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€ 15€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.



Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!

LEHOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL

LEHOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 31 03 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

















begitu

Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizidadea diseinatzen deutsu.

Publizidade eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu
(beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA

Diseinua +
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA

Diseinua +
4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publizidadea:
649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.